

# HEZKUNTZA NAZIONALAREN BIDEAN MAIATZAREN 30ean IRUÑEARA

---

**EHBEk MAIATZAREN 30ean, Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko manifestazioa antolatu du Iruñean, dinamikari amaiera emateko.**

Euskal Herriak Bere Eskolak azkeneko hilabete eta erdian “Herriz herri, egunez egun, urratsez urrats... Hezkuntza Sistema Nazionala!” deituriko dinamika jarri genuen abian eskualdez-eskualde. Martxoaren 31ean dinamikari hasiera eman genionetik Oreretan, Bergaran, Arrasaten, Zarautzen, Orion, Oiartzunen, Aretxabaletan, Gasteizen, Donibane Lohitzunen, Portugaleten, Leitzan... egon gara eta milaka izan dira Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldarrikapenarekin bat egin duten ikasle, irakasle, herritar, guraso eta langileak. Bi eremu busti ditugu eta berauetan gaia lantzeko hainbat bide zabaldu ditugu: unitate didaktikoa, erakusketa dinamiko eta partehartzailea, mobilizazioak, haurrei bideraturiko saioak, herritarren argazkiak... Kanpaina aste honetan Goierri eta Enkarterrietan egongo da, hurrengo astean Bilbon eta, azken astean, maiatzaren 26tik 31ra Iruñerria bustiko du. Dinamika osoarekin bukatzeko Maiatzaren 30ean manifestaldia burutuko dugu Iruñean, arratsaldeko 6tan Autobus Geltokitik.

Asko dira gure herrian hezkuntza esparruan jasotzen ditugun inposaketak. Azpimarratzekoa da Nafar Gobernuak euskara zein euskal irakaskuntzaren garapenarekin amaitzeko egiten ari dituen etengabecko saiakerak (Hello! haur eskolak, British ikastetxeak, curriculum dekretuak...)

Azken urtetan ingeleraren aitzakia erabiltzen ari dira erasoaldiak mozorrotzeko. Horrela aurrerapenaren izenean ingelerako ereduak garatu eta euskaldunduko ez duen eskola eredu bultzatzea dute helburu. Bide horretan, egunero ikusten ari gara D ereduak jasaten ari dituenak: euskarazko haur eskolen hutsunea, ikastetxe masifikatuak, unibertsitate erdalduna... **Hau da Nafar Gobernuak eskaintzen duena: ingelerazko irakaskuntzari loreak eta euskal irakaskuntzari harriak.**

Baina eraso hauei guztiei herritarrok beti egin diegu aurre. Horrela, **Euskal Herriak atzeraezinak bilakatu diren urratsak eman ditu** eta hezkuntza komunitateak bere prestutasun zein konbentzimendu osoarekin aurre egin dio erronka handi (Ikastolen sorrera, 80.hamarkadako mugimendu pedagogikoaren loraldia, eskola publiko euskaldun berriaren aldeko masa soziala, Ikasle mugimenduaren sorrera, Euskal Curriculum, Euskal Unibertsitatea...) zein txiki ugariri (euskarazko aisialdi talde hezitzaileak herriz herri, euskaraz eta euskal kulturaren hedapenerako dantza, kirol edo musika elkarteak etab).

Oraingoan, **Euskal Herria Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko aldarriarekin bustitzera** doa Euskal Herriak Bere Eskola. Herri eragileak bere 6 urteko historian, apaltasunez, baina ilusio osoarekin egin nahi duen ekimenik indartsu eta herrikoiena.

Honengatik guztiagatik, tokian toki pairatzen ditugun Inposaketak salatu eta Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzeke datorren **ostirala 30an, arratsaldeko 18:00tan autobus geltokitik abiatuta burutuko dugun MANIFESTALDIAN** parte hartzera animatzen zaituztegu, guztion ondar alea garrantzitsua da eta!!

Manifestaldia, gainera koloretsua izateko gogoia dugu. Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko aldarrikapen guztiek lekua izan dezatela, euskarazko irakaskuntza baten aldekoak, 0-3 epeko kalitatezko hezkuntza euskaldun baten aldekoak, Euskal Unibertsitatea baten aldekoak eta finean beste hezkuntza baten aldeko guztiak biltzea da gure helburua. Bakoitzak bere aldarrikapena eraman dezala eskatzen dugu, guk manifestaldia eta giroa jarriko dugu, joaldun eta kale animazioarekin. Bukaeran, gainera, Hezkuntza

Sistema Nazionalaren aldeko ekitaldia egingo dugu, iraganean HSNaren alde egin diren hainbat ekimen goraiapatuz, orain egiten ari denaz ohartaraziz eta etorkizunean ditugun erronkei helduz.

Dei berezi bat egin nahiko genuke gaurkoan hezkuntza mugimenduari eta herritarrei orokorrean:

- Batetik, dinamikaren baitan herriz herri eta ikastetxez ikastetxe antolatuko diren tailer, mobilizazio eta ekimen ezberdinetan parte hartzeko deia
- Bestetik, dagozkigun hezkuntza eskubideen defentsan eta inposaketen aurka, herri eta ikastetxeetan mobilizazioak antolatzeko gonbita luzatu. EHBek martxan jarritako dinamikaren baitan, Hezkuntza Sistema Nazionalari egin diezaiokegun ekarpen gisa ulertuz.

**Euskal Herrian, 2008ko maitzaren 14an.**

